



# **GOBERNU BILERA**

## **Prentsa-Txostena Gai nagusiak**

# **CONSEJO DE GOBIERNO**

## **Dossier de Prensa Asuntos destacados**

**Donostia/San Sebastián, 2016ko abuztuaren 30a**

**Donostia/San Sebastián, 30 de agosto de 2016**

## Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

### **300.000 EUROREN LAGUNTZAK IRAGARRITA, NEKAZARITZAKO ETA BASOGINTZAKO ELKARTEENTZAT**

**Laguntza bide honen helburua da tokiko produktua batera merkaturatzen duten Nekazaritza eta Basogintzako Ekoizleen Elkartek eta haien artean eratutako Batasunak bultzatzea eta saritzea**

Eusko Jaurlaritzak, abuztuaren 30eko bileran, nekazaritza eta basogintzako ekoizleen elkarteentzako laguntzak iragarri ditu 2016. urterako. Laguntzak 2015-2020 aldirako Euskal Herriko Landa Garapeneko programan aurreikusitakoak dira, Ekonomiaren Garapeneko eta Lehiakortasuneko sailburuaren agindu baten bidez arautzen dira, eta guztira 300.000 euro bideratuko dira horretara.

Laguntza horien onuradunak Nekazaritzako eta Basogintzako Ekoizleen Elkartetan antolatuta egon beharko dira eta elkarte horietako kide gisa onartuta, eta hainbat baldintza bete beharko dituzte, hala nola enpresa txiki eta ertainaren tamaina gainditzea, salmentan batera aritzea eta bost urterako plan enpresarial bat aurkeztea.

Laguntza horiek ez dira bateragarria Fruta eta Barazkien Ekoizleen Erakundeentzat direnekin, horiek arau berezi batez arautzen dira eta.

Aginduan aurreikusten den zuzkidura guztiarekin eskaera guztiei erantzutea ezinezkoa bada, baremo bat aplikatuko da, zeinaren bidez jada eratuta dauden taldeei eta beraien negozio planaren bitartez merkaturatuko duten produktuaren bolumena handitzea aurreikusten dutenei lehentasuna emango zaien.

Puntuazio berdina izanda, kontuan hartuko da datozen urteetan bazkide kopuruan eta produktu bolumenean hazkunde handiagoa aurreikusten duten elkarteak. Dena dela, urteko laguntza erakundeko ezin izango da 100.000 euro baino gehiagokoa izan. Ordainketa bakarra izango da, eta eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu ondoren egingo da. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendaritza arduratuko da egiaztapen horretaz.

Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da gehienez, eta agindua indarrean hasten den egunaren biharamunean hasiko da kontatzen. Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariari bidaliko zaizkio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak aurreikusitako edozein bidetatik.

## Segurtasuna

### **EUSKO JAURLARITZAK 2.300.000 EURO BIDERATUKO DITU HAUTESKUNDE AUTONOMIKOETAKO LANGILEEN ETA HAUTESKUNDE ADMINISTRAZIOAREN KOSTUA FINANTZATZEKO**

#### **Gastuaren %ko 79,3 hauteslekuetako eta hautes-mahaietako langileen gastua ordaintzeko izango da**

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak iralaren 25erako deitu dituen Lehendakariaren abuztuaren 1eko Dekretua onetsi ondoren, Gobernu Kontseiluak Herrizaingo Sailaren proposamena onartu du eta, Sailak proposatutakoari jarraiki, hauteskundeetan langileek eta Hauteskunde Administrazioak eragindako kostuak finantzatzeko diru-sail bat xedatuko du. Aurreikuspenen arabera, diru-saila 2.300.000 eurokoa izango da, 2012ko Hauteskundeetan baino %ko 8,5 gutxiago (orduan 2.513.000 eurokoa izan zen); funtsean, 185 hautes-mahai gutxiago izango direlako eta, ondorioz, 2.000 pertsona gutxiago mahaikide.

Herrizaingo Sailak Hauteskundeetako langileria ordaintzeko erabiliko duen bi milioi eta erdiko funts-hornidura horretako kontusailik garrantzitsuena (1.845.467euro) hauteslekuak zuzenean eragiten dituzten kostuak ordaintzeko erabiliko da. Kontusail horretan sartuko dira hautes-mahaietako kideen, Udaletako langileen, udal-idazkarien eta hauteslekuetan egongo diren euskal Administrazioako ordezkarien ordainsariak eta hautes-mahaietako kideen zein horien ordezkoen Gizarte Segurantzako aldi baterako arriskuen estaldura ere.

Hiru Lurralde Historikoetako eta Eremuko Hauteskunde Batzordeen lana hauteskunde-prozesua behar bezala garatzen dela ikuskatzea da, eta Batzordeok finantzatzeko 396.720 euroko kontusaila egongo da. Kopuru horretan sartuko dira Batzordeetako kideek eta langileek eragindako gastuak eta horien gastu arrunta.

Lehen Auzialdiko Epaitegiek zein Bake Epaitegiek bozka eman ondoren mahaietako hauteskunde-agiriak zaintzeko zeregina dute, eta horretarako 31.494,8 euroko inbertsioa beharko da.

Aurrekontu-saila osatzeko, 26.317,49 euroko soberakina utzi nahi da gastu ezberdinei eta hauteskunde-prozesuan sor litezkeen ezustekoei aurre egin ahal izateko.

Langileen eta Hauteskunde Administrazioaren inguruko gastuoi hautesontziak eurak eta boto-txartelak, gutun-azalak zein hauteskundeetarako bestelako inprimakiak ordaintzeko gastuak eta hauteskunde eguneko segurtasun-dispositiboak eragindako gastuak gehitu beharko zaizkie.

## IZENDAPENAK ETA KARGU UZTEAK

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak gaur onartu du Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendari Santiago Larrazabalen kargu uztea.

Honez gain, Kontseiluak Miren Gotzone Sagardui Goikoetxea LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatzeko zuzendari kargutik kendu du. Adolfo Alustiza Lanbideren zuzendari nagusiak hartuko ditu bere gain Zuzendaritza horren funtzioak, kargurako beste pertsona bat izendatu bitartean.

Akziodunen Batzar Nagusi gisa eraturako Gobernu-Kontseilu berean, orain arte Alokabide sozietate publikoko zuzendari nagusi zen Irune Berasaluze kargutik kentzea onartu dute, eta Marcos Muro VISESAko zuzendari nagusiari haren funtzioak behin-behinean bere gain hartzeko ahalmena ematea adostu dute.

Gobernu Batzordeak gaur onartu du baita Iñaki Gurtubai Artetxe, Segurtasun saileko Administrazitza eta Zerbitzu Sailburu ordearen kargu uztea, Administrazitza beste kargu bat betetzera baitoa.

Eusko Jaurlaritzak eskerrak ematen dizkiete Santiago Larrazabal, Gotzone Sagardui, Irune Berasaluze eta Iñaki Gurtubairi legealdi honetan eskaini dituzten zerbitzuengatik, eta etorkizun pertsonal eta profesional ona izan dezaten opa diete.

## Desarrollo Económico y Competitividad

### CONVOCADAS AYUDAS POR 300.000 EUROS PARA AGRUPACIONES AGRARIAS Y FORESTALES

**Esta línea de ayudas tiene por objeto potenciar y reconocer aquellas Agrupaciones de Productores Agrarios, Forestales y sus Uniones que comercialicen en común producto local**

El Gobierno Vasco, en su reunión de consejo de 30 de agosto, ha convocado para el año 2016 ayudas destinadas a las agrupaciones de productores agrarios y forestales, previstas en el Programa de Desarrollo Rural del País Vasco 2015-2020. Reguladas por una orden de la Consejera de Desarrollo Económico y Competitividad, cuentan con un montante total de 300.000 euros.

Los beneficiarios de estas ayudas deberán estar constituidos y reconocidos como Agrupaciones de Productores Agrarios y Forestales y deberán cumplir determinados requisitos, tales como no sobrepasar el tamaño de pyme, comercializar de forma conjunta y presentar un plan empresarial a cinco años.

Esas ayudas son incompatibles con las destinadas a las Organizaciones de Productores de Frutas y Hortalizas, que cuentan con su propia normativa.

En el supuesto de que la dotación total prevista en la orden no alcance para todas las solicitudes, de aplicará un baremo que primará a las agrupaciones que ya estén constituidas así como a aquellas cuyo plan de negocio prevea un mayor volumen de comercialización de producto.

A igualdad de puntuación, se tendrá en cuenta aquellas agrupaciones que prevean un mayor crecimiento en el número de socios en los próximos años y de volumen de producto. En cualquier caso, la ayuda anual por organización no podrá superar los 100.000 euros. El pago será único y se realizará una vez comprobado que se cumplen todos los requisitos exigibles. El órgano encargado de esta comprobación es la Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco.

Las solicitudes se presentarán en plazo máximo de un mes a contar desde el día siguiente en que la orden surta efecto. Se dirigirán a la Directora de Agricultura y Ganadería por cualquiera de los cauces previstos por la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas.

## Seguridad

### **EL EJECUTIVO VASCO DESTINA 2.300.000 EUROS A FINANCIAR EL COSTE DE PERSONAL Y DE LA ADMINISTRACIÓN ELECTORAL DE LAS ELECCIONES AUTONÓMICAS**

#### **El 79,3% del gasto va dirigido a costear los costes de personal de los locales y las mesas de votación**

Tras la aprobación del Decreto del Lehendakari, del pasado 1 de Agosto, por el que se convocan las Elecciones al Parlamento Vasco para el próximo 25 de septiembre, el Consejo de Gobierno ha aprobado la propuesta del Departamento de Seguridad en la que se establece la partida económica destinada a financiar el coste de personal y de la Administración Electoral para dichos comicios. La previsión para este apartado asciende a 2.300.000 euros, lo que supone un descenso de un 8,5% con relación a las pasadas Elecciones de 2012 (2.513.000 euros), motivado básicamente por la existencia de 185 mesas electorales menos, y, en consecuencia, cerca de 2.000 personas menos las llamadas a ser miembro de mesa.

De esta provisión de fondos de dos millones trescientas mil euros que Seguridad va a destinar a sufragar el coste de personal de las Elecciones, la partida más importante, 1.845.467 euros, irá dirigida a costear los gastos generados directamente por los locales electores, incluyéndose aquí las compensaciones a los miembros de las mesas electorales, personal de los Ayuntamientos, secretarios municipales y representantes de la Administración vasca en los colegios, así como la cobertura temporal de riesgos por la Seguridad Social para los miembros de las mesas electorales y los suplentes.

La financiación de las Juntas Electorales, tanto las correspondientes a los tres Territorios Históricos como las de Zona, que deberán supervisar el buen discurrir del proceso electoral a lo largo de todo su desarrollo, conlleva una partida de 396.720 euros, en la que se incluyen los gastos generados por los componentes y el personal de las Juntas así como el gasto corriente de las mismas.

Los Juzgados de Primera Instancia o de Paz, como órganos que deberán velar por la custodia de la documentación electoral de las mesas tras las votaciones, conllevarán una inversión de 31.494,8 euros.

La partida presupuestaria se completa con un remanente de 26.317,49 euros para cubrir gastos varios así como los posibles imprevistos que puedan surgir durante todo el proceso electoral.

A estos gastos en personal y Administración Electoral se sumarán posteriormente los necesarios para costear las propias urnas y papeletas, sobres de votación y otros impresos electorales, así como los que se derivan del dispositivo de seguridad de la jornada de votación.

## NOMBRAMIENTOS Y CESES

El Consejo de Gobierno ha procedido hoy al cese como Director de la Secretaría del Gobierno y Relaciones con el Parlamento de Santiago Larrazabal.

Asimismo, se ha procedido al cese de Miren Gotzone Sagardui Goikoetxea como Directora de Activación Laboral del Servicio Vasco de Empleo, LANBIDE. El actual Director General de Lanbide, Adolfo Alustiza, asumirá las funciones de la citada Dirección hasta que no se proceda al nombramiento de otra persona.

En el mismo consejo de Gobierno, constituido como junta General de Accionistas, se ha aprobado el cese de Irune Berasaluze, hasta ahora Directora General de la sociedad pública Alokabide, y ha acordado facultar al Director General de VISESA, Marcos Muro para asumir provisionalmente sus funciones.

Por último, el Consejo de Gobierno ha aprobado el cese del viceconsejero de Administración y Servicios del Departamento de Seguridad, Joseba Iñaki Gurtubai Artetxe, por pasar a ocupar otro cargo en la Administración.

El Gobierno Vasco agradecen a Santiago Larrazabal, Gotzone Sagardui, Irune Berasaluze y Joseba Iñaki Gurtubai los servicios prestados a lo largo de esta legislatura y les desean un buen futuro personal y profesional.